

**INFORMAZIOAREN HAUTEMATEA  
ETA TRANSMISIOA.  
ZURRUMURRUEN ZABALTZEA**



Itsasne Zipitria Sinde  
2020-2021 Ikasturtea  
Psikologia eta Komunikazioa

## ❖ HELBURUA

Praktika honen helburua nagusiak bi dira: informazioaren transmisio eta zurrumurruen zabaltze prozesuak aztertzea; eta informazioaren transmisio eta elaborazioan aurretiko eskemek duten eragina analizatzea. Beste hizt batzuetan esanda, pertsona batek beste bati zerbait kontatzean informazioa nola aldatzen den, hau da, zurrumurruek nola aldatzen diren pertsona batetik bestera pasatzean.

## ❖ PROZEDURA

Praktika hau burutzeko, 14 ikasle aukeratu dira, eta gero, 7 pertsonako bi talde egin dira. Taldeko partaideei zenbaki bat esleitzen zaie (1-7 bitartekoa); eta bi taldeei klasetik ateratzeko eskatu zaie. Talde bakoitzaren zeregina desberdina izango da:

Lehenengo taldeko 1 taldekidea ikasgelara sartu beharko da, eta argazki bat erakutsiko zaio. Taldekide horrek 3 minutu edukiko ditu argazkiko elementuak arretaz aztertzeko eta ondoren orri batean apuntatu beharko ditu bertan ikusi dituen eta gogoratu ditzakeen elementu guztiak. Bukatzerakoan 2 taldekidea sartuko da klasera, eta 1 taldekideak zerrendatu dituen elementuak zeintzuk diren esango zaizkio. Jarraian, gogoratu ditzakeen elementuak zerrendatuko ditu orri batean, 1 taldekideak egin duen bezala. Ondoren, 3. taldekidea sartuko da eta 2 .taldekidearen zerrenda esango zaio. Gainontzeko taldekideekin prozedura berdina jarraituko da.

Bigarren taldeak egin beharrekoa antzekoa da, baina ez dituzte elementuak zerrendatuko, argazkia interpretatuko dute, bertan dauden elementuei erreparatu beharko diote istorio labur bat asmatzeko. Argazkiari begiratzeko 3 minutu edukiko dituzte. Istorioa orri batean idatzi beharko dute, eta lehen taldekide bakoitzarekin jarraitu den prozedura berdina jarraituko dugu, istorioa ahoz-aho transmititu dadin.

Esperimentua amaitutakoan lortutako emaitzak beheko tauletan jaso eta interpretatuko ditugu.

❖ **EMAITZAK**○ **1.taldea:**

PROZESUAK	EGINKIZUNA 1.- SUBJEKTU ZENB. KATEAN							
	1 Maddi	2 Ane	3 Eduene	4 Maite (informazioa pobretzea)	5 Aintzine	6 Julen	7 Unai (informazioa pobretzea)	T
Unitateak (gogoratuak)	15	8	6	6	5	5	5	
Ahaztutakoak		7	2	0	1	0	0	
Atxekipena								
Areagotzea: zenbakizkoa								
Areagotzea: kualitatiboa								
Periferiatik zentrora pasatzea								
Asi. kondentsazioagatik		?						
Asi. Aukerengatikoak						1		
Asi. Konfigurazio ona.								
Asi. Gai nagusiarekiko								
Asi. Aurreiritziak								
Asi. Kulturala								
<b>TOTALA SUBJEKTUA</b>								

Elementuen zerrenda handia denean partaideek gogoratzen dituzten elementu kopurua asko murriztuz doala aipagarria da. Elementuen zerrenda txikiagoa denean, aldiz, partaideak gai dira elementu gehienak gogoratzeko. Hau argi ikusten da; Maddik 15 elementu gogoratu ditu, Anek soilik 8 eta 5,6,7 taldekideek 5. Hartaz, hasieratik bukaeraraino 10 elementu ahazten, galtzen dira. Bestalde, elementuak galtzeak ez duela informazioaren pobretzea ekartzen, nahiz eta Anek elementu asko ahaztu, Maddik esan dizkion bezala idatzi ditu, kasu honetan ez da informazioa pobretu. Edurneren kasuan aldiz, kontrakoa gertatzen da: bi elementu soilik ahaztu ditu, baina informazioa apur bat pobretu du. Edurene ez da izan informazioa pobretu duen pertsona bakarra, Unai eta Maitek ere gauza berdina egin dutenez, bidean detaileak galdu dira. Aintzinek, aldiz, informazioa osatu du, zerrenda kualitatiboki biziagotu du, elementuei adjektibo berriak gehituz. Azkenik, asimilazioa egon da, Julenek aurretik esandako informazioa distorsionatu du, kanpandorrea aurrean zegoela esan diote, baina berak behean dagoela esan du, hau da, objektuaren kokapena aldatu du.

○ **2.taldea:**

PROZESUAK	EGINKIZUNA 2.- SUBJEKTU ZENB. KATEAN							
	1 Ikerne	2 Eunate	3 Oier	4 Miren	5 Saskia	6 Nerea	7 Maider	T
Unitateak (gogoratuak)	12	8	6	6	5	5	4	
Ahaztutakoak		4 elementu pobretu	2	0	1	0	1 gaizki ulertzea (erizaina)	
Atxekipena								
Areagotzea: zenbakizkoa								
Areagotzea: kualitatiboa							Parisetik 21kmra ordez Parisen	
Periferiatik zentrora pasatzea								
Asi. kondentsazioagatik								
Asi. Aukerengatikoak								
Asi. Konfigurazio ona.								
Asi. Gai nagusiarekiko								
Asi. Aurreiritziak								
Asi. Kulturala								
TOTALA SUBJEKTUA								

Istorioak zenbat eta elementu izan, luzeagoa edo konplikatuagoa da gogoratzeko eta beraz, elementu gehiago ahaztuko dira. Istorioak elementu gutxi baditu, pobregoa denean, errazago gogoratzen da, ahaztuko diren elementuen kopurua txikiagoa da. Baina kasu honetan, istorioko elementuek beraien arteko lotura bat dutenez, errazago gogoratzen da, elementuen murrizketa motelagoa izango da.

Eunateren kasuan istorioaren pobretzea eman da, ohikoa den bezala istorioaren erdiko informazioa galdu da, izan ere hasierako eta bukaerako informazioa errazago gogoratzen dugu.

Oierrek kasuan, aldiz, asimilazio osagarria gertatu da, informazioa osatu egiten du, elizaren gainera zerbait erori dela esan baitiote, eta berak erorketaren ondorioz eliza puskatuta gelditu dela interpretatu baitu.

Saskiaren kasuan, berdinketa eman da, zenbait elementuren artean hautaketa bat egin du, xehetasunak galduz. Gizon bat tiroteatu dutela gogoratu du, baina ez da anbulantziataz gogoratu.

Azkenik, Mainerren kasuan areagotze kualitatiboa gertatu da, istorioa Parisetik 21 km-tara dagoen herri batean gertatu dela esan diote, baina berak Parisen gertatu dela ulertu du. Horretaz gain, istorioaren hasiera eta amaiera apur bat aldatu ditu, ez ditu zehazki ziren bezala gogoratu.

### ❖ ONDORIOAK

Esperimentu hau burutu ondoren hainbat ondorio atera ditugu. Emaitei erreparatzen badiegu, pertsona batetik bestera informazioa pasatzen denean, bidean informazio asko galtzen delaz ohartzen gara. Detaileak galtzeaz gain, pertsona bakoitzak informazioan eraldaketak egiten ditu, istorioa modifikatzen du elementu batzuk kenduz eta beste batzuk gehituz. Horregatik, istorio originalaren funtsa asko aldatu daiteke. Guzti hau esanda, argi eta garbi gelditzen da, kalean entzuten diren zurrumurruek ezin ditugula informazio fidagarri bezala erabili, eta garrantzitsua den zerbait baieztatu aurretik informazioa kontrastatzea komeni da.